



## ERREPORTAJEA : 'Gora Kasete!' antzezlan

GORKA RUBIO / FOKU



# Festarako prestatzen

Izeko Margaritaren urtebetetzea da, eta zer oparitu pentsatu behar dute haren ilobek. Zerbait berezia egin nahi diote, eta horixe erabaki beharko dute. Horixe da Eidabe konpainiaren 'Gora Kasete!' antzezlanaren muina.

Testua: **Maialen Unanue Irureta**

**Z**er opari gustatuko zaio gehien izaba Margaritari? Jertse bat, liburu bat, perfume bat? Ez, ez. Izeko Margarita berezia da, osaba-izeba guztien artean iloben favoritua, desberdina, alaia. Zein izan daiteke, ordea, oparirik bereziena? Haren urtebetetze eguna iristear da, eta lau iloba elkartu

dira, festa antolatzeaz gain, opari bat egiteko. Horixe da Eidabe konpainiaren *Gora Kasete!* kale antzezlanaren ardatza. Estreinatutako berri dute obra, eta hainbat emandaldi egingo dituzte datozen asteetan Euskal Herrian zehar.

Iloba nagusienari otuko zaio oparirik bereziena: izeko Margaritaren bizitzako abestirik gustukoena batuko dituzte kasete batean. «Kasete bat, zer da hori?», gal-

detuko dute, ordea, gainerako ahaideek. Gazteagoak dira, haren aldean, eta ez dakite zer den zera hori. Hala, iloba nagusiak azalduko die gazteenei zer diren kaseteak, zer-nolako aparatuak erabiltzen ziren barruan jasotakoak entzuteko, eta nola garai batean irratan jartzen zituzten abestiak grabatzen zituzten kaseteetan.

Hori erabakita, zein abesti grabatu, ordea? «Izeko Margaritari de-

netik gustatzen zaio: Queen, Abba, Kortatu, Negu Gorriak, La Polla, Hertzainak...», azaldu du Birjina Lara Zabaleta Eidabeko kideak. Kantuak aukeratzea aitzakia bikaina izango da kasetearen bestelako kontuak ezagutzeko: Margaritak Salamancan (Espainia) ikasi zuen Arte Ederrak, eta, hara egindako bidaietan, beti egiten zuen geldialdiak diren bat gasolindegietan.

Hain zuzen ere, abestiek dantza egiteko aitzakia ematen die Margaritaren ilobei, eta, hala, koreografia asko dituen lana osatu dute, Larak azaldu duenez. Eneko Amezketa aktoreak egin ditu koreografiak: «1980ko hamarkadako musika